

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

JESUKRISTO ERREGE

2009 Azaroak 22(B urtea)

Patxi Otamendi

Daniel 7, 13-14 15-17

Apokalipsia 1, 5-8

Joan 18, 33b-37

- Zenbaitek oztopoak aurkitzen ditu Kristo erregetzat hartzeko. Batez ere, erregetza edo aginte pertsonalarekiko irizpidea aurkakoa denean. Nola ulertu Kristo guretzat benetako Errege edo Jaun ona denik? Israelgo historian erregeak herriaren onura eta aurrerapenaren bermatzaile ziren, baldin eta justiziaren bidetik aritzen baziren. Beharrezko zitzairen ere Jainkoaren aginduak betetzen saiatzea. Errege batengandik herriaren bakea eta ongizatea bultzatzea espero zen.

Benetan ironikoa eta bihurria herriari onura edo segurtasuna ekarri behar zionak gaizkile amaiera izatea. Epaitua izango den horrek gaurko pasarteetan dio historiaren hainbat akats eta ilun-uneak hankaz gora eta argituak izango direla. Promesa hori onartzean ala ez onartzean diosku datzala benetako hautua: argia ala ilunpearen alde egitea. Gerora Pilatos berak ere aukeratu behar izango duen bezala.

- Pilatosen zuzendu duen galdeketa Jesus berari eskatzen dio argi uztea ea juduen errege ote den. Leporatzten dioten salaketa hori lau ebanjelioetan ageri da. Agian Pilatosek ziurtatu nahi zuen judutar salatzailak belarrira esan ziotena benetako kontua ote zen. Edo guzti horretan beste zerbaite gehiago ote zegoen: arazoa politikoren bat. Zer ote zen benetan Jesusek lortu nahi zuena? Botere politikoa? Judutarrak euren epaitegian egindako galdeketa buruzagi erlijiosoa izatea leporatu zioten. Pilatosen galdeketa buruzagitzat politikoa bila dabilen argitu nahi du.
- Itun Berrian gehienetan ez-judutarren ahotan esaten Jesus judutarren errege dela. Erromatarrek hobeto ulertzen zuten errege asmoak izatearen arriskua, profeta izan nahiarena baino. Botere erromatarra gehiago aztoratu eta zelatan jarriko zen errege asmoak zituela zabaltzen bazen.

Gaurkoan, Jesusek “Gizonaren Semea” aipatzen du. Joanen ebanjelioa Domiziano enperadorearen garaian idatzia da, eta une horretan hiritar guztiak behintzat urtean behin enperadorearen “nagusitasun osoa eta jaun gorentasuna” aitortu behar zuten. Noski, kristauek beste Jaun Goren bat zuten, eta uko egiten zioten enperadoreak eskatutako aitormenari.

- Joanen ebanjelioan Jesusen erregetza agerian zein zeharkakoan adierazten da. Pilatosen aurrean agertzen du bere izaera Jesusek, egiten duen aitormena bitartez. Errege dela aipatzean herriaren zerbitzari gisa aurkeztu nahi da, eta ez botere absolutua duena. Dena dela, bitxia da Jesukristo Errege jai liturgikoa hau XX. mendean sortua izana. Modernitatean erregeak gehiago du botere esanahia zerbitzariarena baino. Gainera, erregeak lurralde batekoak izaten dira eta jende-talde batekin dute lotura. Jesukristok, ordea, guztioi eskaintzen digu bere onbidea. Nortzuk dira Jesusekin lotura dutenak? Bere asmoan bataiatuak. Horiek dute Artzain, Jaun eta Errege.

Nola gidatzen du Errege honek? Gurutzetik, maitasunaren bidetik. Gurekin duen harremana Eukaristian irudikatzen da: mahaikide egiten gaitu. Mahai horretan biltzen dira bere asmoak eta gureak; bere bizitzaren norabidea eta gurearena; bere itxaropenak eta gureak.